

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK


Gure jarduera egin ahal izateko, hainbat baliabide behar ditugu:

### ***Baliabide fisikoak:***

Gure produktua errealitatera eramateko leku aproposa behar dugu, eta leku hau Donostian kokatzen da, Amara Zaharra-Arbaizenea kalean. Alokaturako dugun lokalak 90 m<sup>2</sup> ditu eta hilabetero 550€ ordainduko ditugu.

Lokal hau oso aproposa da guretzat bi solairu dituelako; bat produkzioarako, marketing-erako, erosketerako... eta bestea biltegiarako.

Banaketa hau izango du:



Lehenengo solairua

Bigarren solairua

Gure produktuan goi-teknologia aplikaturiko dugunez, hau programatzeko tresneria beharko dugu, baita zati guztiak batzeko ere.

Gainera, gure produktua interneten eskuragarri egongo denez, router bat beharko dugu, interneta edukitzeko.

### ***Baliabide intelektualak:***

Guk, jakina denez, Inflatorko egiteko beste enpresa batzuen laguntza beharko dugu, hala nola, gure produktuak daraman saretxoa. Saretxoa josteko eta ondo prestatzeko Gureak Ehungintza enpresarekin harremanetan jarriko gara, akordio bat egiteko. Horren arabera, saretxoak eginda bidaliko dituzte gure lokalera, horrela lana errazteko.

Horretaz gain, gure produktua berritzailea denez, produktua erregistratu beharko dugu, hau da, patentea egin.

Hau guztia aurrera ermatero hainbat jakintza izan beharko ditugu, haien artean teknologia eta programazioaren inguruko jakintzak, gure produktua programatzeko eta martxan jartzeko; marketing inguruko jakintzak, gure produktua ezaguna bilakatzeko; eta azkenik, kontabilitateari buruzko ezagutzak beharrezkoak dira, egonkortasun ekonomikoa garrantzitsua baita.

### ***Giza baliabideak:***

Hasteko, gure enpresa 4 lankidek osatuko dugu, eta bakoitzak produktua sortzeko fase batetaz arduratuko da. Hona hemen bakoitzak beteko duen funtzioa:

Ruth izango da produktuaren salmenten kontua eramango duena, gai honen inguruan ezagutza duelako eta salmenten kontuak eramaten badakizkielako.

Inflaktor-a ekoizteko, gure lokalean, Fatima eta Ibai egongo dira, batez ere Ibai. Ibaik sentsoreak programatuko ditu eta Fatimak, sentsoreak programatuta daudelarik, Gureak enpresak bildalitako saretxora konektatuko ditu. Biak programatzaileak dira, eta beraz, egokienak dira produkzioaren fase hau gauzatzeko.

Azkenik, marketing kontua Jurgik eramango du. Bera arduratuko da produktua gero eta pertsona gehiagorengana iristean, bai hainbat egoitzatan hitzaldiak egiten Inflaktor aurkezteko, bai gure web orrian aktibo egonez.

### ***Finantza baliabideak:***

Gure enpresa martxan jarri ahal izateko 15.680,98€ beharko ditugu; gure kabuz 2.500€ inbertitzeaz gain, 5.680,98€ko mailegu bat eskatuko dugu bankuan, lehenengo hilabetean behar ditugun gauza guztiak eskuratu ahal izateko.

Aurrerago, enpresa arrakastatsua bada, bankuari pixkanaka utzitako dirua bueltatuko diogu.